

Wifia eskura, klik batekin

A partir de ahora, los y las tolosarras podrán contar con servicio Wifi gratuito en los principales edificios públicos de la villa con solo registrarse. Se prevé añadir nuevas localizaciones para este servicio en una segunda fase



Gizartearekin online konektatu nahi duenak ez du etxean gelditu beharko hemendik aurrera. Tolosako Udalak doako WIFI zerbitzua eskainiko du hainbat eraikin publikotan, herritarrei lagungarri egingo zaielakoan. Jada udaletxera, liburutegietara, kultur etxera, Pablo Gorosabeleko eraikineri, Abastosera edo Usabal polikiroldegira joaten den edonork WIFLa bere eskura izango du. Horretarako, erregistroa egin beharko du herritar bakoitzak lehenago.

Dohaineko zerbitzua mantentzeko legeak eskatzen dituen baldintzak beteko ditu zerbitzuak, hau da, abiaduran eta denboran mugatuta izango da: Egunean zortzi orduan zerbitzu honetaz gozatzeko aukera izango du erabiltzaile bakoitzak, eta 512Kbpseko abiaduran.

Zerbitzu hau erabiltzeko, mugikor zenbakia besterik ez da behar. Udalwifit_Tolosa izeneko sarera konektatu ahal izango da erabiltzailea klaberik sartu gabe eta Tolosako Udaletxeko webgunean mugarik gabe ibili. Harago joan nahi duenak bertan erregistratu beharko du, izen-abizenak, NAN zenbakia eta mugikor zenbakia jarritz. Sistemak, mezu baten bidez, kode bat bidaliko dio eta hori sartutakoan, jada erregistroa eginda dago. Pasahitza nahi denean alda liteke. Momentu honetatik aurrera, erabiltzaileak eraikin publiko hauetan zerbitzu hau erabiltzeko aukera askea izango du, mugikorrek duen WIFLaren ikurrari klik egitearekin batera.

Lehenengo fase honetan, udaletxean, liburutegietan, kultur etxean, Pablo Gorosabeleko eraikinean, Abastosen eta Usabal polikiroldegian ezarriko da doako WIFLa

Segurtasun aldetik, lanketa mardula egin du Udalak bertako langileek erabiltzen duten sarea eta zerbitzu berri hau nahastu ez daitezen eta bi sareak bananduta mantendu daitezen. Honela, WIFI berriaren erabiltzailearentzat "ezinezkoa" izango da Udalak bere sarean dituen datuak ikustea.

Hasiera batean, Tolosako enparantzetan jartzea zen Udalaren ideia, baina beste leku batzuetan arazoak

WIFLa piztu eta Tolosako sarean konektatu.
Encender el Wifi y conectarse a la red de Tolosa.

1.



2.

Login orrialdean sartu eta bertan, izen-abizenak, NAN zenbakia eta mugikor zenbakia sartu beharko dira.

Entrar en la página de registro y rellenar los datos de nombre, apellidos, DNI y teléfono móvil.



3.

Sistemak kode bat bidaliko du mugikorrera eta horrekin, izena eta pasahitza sar daitezke. Erregistratua uzteko aukera dago, erabileraro sartzen ibili gabe.

El sistema le enviará un código mediante un SMS y con él, podrá conseguir su nombre de usuario/a y contraseña. El sistema puede guardar estos datos.

4.

8 orduz doako WIFLa duzu!

¡Tendrá Wifi gratuito durante 8 horas!

izan dituztela eta, azkenean pauso hori aurrerago ematea erabaki dute. Hala ere, jada bigarren fase batean pentsatzen ari dira eta beste eraikin batzuk ere proiektuaren bigarren fasean sartzea da ideia, oraindik guztiz zehaztu gabe badago ere: Oriaburu txaleta – coworking zona bat sortuko da bertan-, Berazubiko polikiroldegia, Leidor aretoa, Topic eta Emeterio Arresen, besteak beste.

Beste herriekin elkarlanean

WIFI zerbitzuan erregistratzen den orok abantailak izango ditu Tolosako mugak zeharkatuta ere. Izan ere, proiektu hau, Udalwifit izeneko, beste hainbat herrirekin elkarlanean garatu da eta horren ondorioak izango ditu erabiltzaileengan. Zumarragak, Andoainek, Hernanik, Lasarte-Oriak, Errenterriak, Aretxabaletak,

Arrasatek, Pasaia eta Urnietak ere parte hartu dute, Tolosarekin batera, ekimenean, eta horri esker, tolosarrek erabilgarri izango duten sarea handitu da. Udalerrri hauetara joatean, Tolosako WIFLiko erabiltzaile eta pasahitz berarekin, bertako sarea erabiltzeko aukera egongo da, beste inolako pausorik eman beharrik gabe.

Egunean, 8 orduz eta 512Kbpseko abiaduran sarera sarbidea izango du erabiltzaile bakoitzak